

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1679

IRAGARKIA, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez Rozalma Agrisolutions SLU enpresak Zumarragan nekazaritza-sektorerako beso malguen fabrikazioaren jarduerarako aurkeztutako proiektu teknikoa jendaurrean jartzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-baimen bakarra lortzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bakarraren araubidearen mende jartzen du titulartasun publiko edo pribatuko jarduerak eta instalazioak ustiatzea, baldin eta I.B. eranskinean jasotako jardueraren bat garatzen bada.

Ingurumen-baimen bakarraren bidez, egintza bakar batean eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak aldeztu aurretik emandako administrazio-prozedura bakar batean integratuko dira hondakinak sortzeko eta kudeatzeko baimenak, eta kolektorerak, jabari publiko hidraulikora eta itsas-lehorreko jabari publikora nahiz atmosferara isurketak egiteko baimenak, eta kasuan kasuko isurtzeko muga-balioak finkatzeko dira, aplikatzeko den araudi sektorialean xedatutakoaren arabera.

Aipatutako arauak 36. artikuluan ezartzen duenez, behin eskabidea aurkeztuta eta aurkeztutako dokumentazioa osatuta dagoela egiaztatuta, instalazio- edo jarduera-proiektua jendaurrean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, aldeztu aurretik iragarkia jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa.

Zabalkunde handiagoa izan dezan, iragarki hori jarduera edo instalazioa kokatuta dagoen lurraldeko udalari jakinaraziko zaio, toki-erakundeak bere ediktu-oholean jar dezan.

Hori dela eta, AAU00945_SOL_2023_001 espedientea jendaurrean jarri behar da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, egoki irizitako alegazioak edo oharak aurkez daitezten.

Jendaurrean jartzeko izapidea bete behar duen instalazioaren dokumentazioa jendearen eskura egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>).

Horrez gain, jakinarazten da 2025eko urtarrilaren 21ean Rozalma Agrisolutions, S.L.Uk hasiera eman ziola lurzoruen kalitatearen deklarazioaren prozedurari, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legean xedatutakoa betetzeko. Prozedura hori ingurumen-organoan izapidetzen ari da. Ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 31. artikuluan ezarritakoaren arabera, lurzoruen kalitatearen deklarazioa egin beharko du Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak, jarduera jartzeko gaitzen duten lizentziak edo baimenak eman aurretik.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko martxoaren 10a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
NICOLAS GARCIA-BORREGUERO URIBE.

ERANSKINA

Espediente zk.	Instalazioa	Udalerria
AAU00945_SOL_2023_001	Rozalma Agrisolutions, S.L.U.	Zumarraga